

Giza-gatazkak, gerra-garaian

'ERREIMATEKO TIROA'

Izenburua. *Erremateko tiroa*.
Jatorrizko izenburua. *Le coup de grâce*.
Egilea. Marguerite Yourcenar.
Itzultzailea. Josu Zabaleta.
Argitaratze urtea. 2007.
Argitaletxea. Alberdania.

INMA ERREA

JOSU Zabaleta nobela hau euskarara ekarri duen itzultzaileak dio narrazio hau poliki irakurtzekoa dela, hain baita trinkoa. Ados nago: ehun orrialde pasatxo baino ez ditu, baina irakurleei haieten barna bide luzea egiteko aukera emateko egina da *Erremateko tiroa*. Luzea eta askotarikoa.

Bere trinkoan kontakizunak ez du

alferrikako hitzik edo ornamen-tuzko pasarterik, eta aldi berean kontalaria eta nobelako hiru pertsonaia nagusietako bat denak, Ericcek, deskribatzen eta kontatzen duen orok helmuga zedarritua du, eta norabide zehatza.

Marguerite Yourcenarrek sarre-ra luze samarra idatzi zion nobelari, non azaldu baitzuen kontakizuna benetako gertaera batean oinarritu zuela. Idazleari nobelako protagonistaren hurbileko lagun batek kontatu omen zion, eta idazleak abentura zirrargarria iritzi zion istorioari, eta "literaturaren ikuspegitik (...) estilo tragikoaren elementu guztiak zituela" ere bai. Yourcenarrek Bigarren Mundu Gerra hasi baino lehentxeago eman zuten argitara berez hogeiei urte lehe-

nago-egilearen hitzetan, "1914ko gerraren eta Errusiar iraultzaren arrastotan"- gertatua zen kontakizun hau.

Yourcenarrek esandakoaren araber, aldi berean oso hurbil eta oso urruti sentitu zuen gertaera, oso zibileko halako gertaera askoren berri ugariak pilatuak zirelako, eta oso hurbil, egileak igarria zuelako *Erremateko tiroak* deskribatzen duen nahasmen morala eta Bigarren Mundu Gerraren atarian zegoena bat eta bera zirela. Nire irudipena da *Erremateko tiroa* gaurkotasunik galtzen ez duten obra horietako bat dela, bertan oso modu zehatz eta zorrotzean deskribatzen baita gizon-emakumeon baitan emozioek, printzipio etikoek,

iritzi politikoek eta interes pertsonalek talka egiten dutenean sortzen den giro nahasia. Maitasuna, gorrotoa, gizon eta emakumeen kontraesanak eta haien arteko harreman beti konplexuak agertzen dira nobela honetan, eta gerra-giroko jokaleku arras dramatikoak halakoak erakusteko aproposa da, arragoa krudel eta bortitz bat nola.

Amodio eta gorrotoen sare korapilatsuetan harrapatuak dauden Conrad eta Sophie anai-arreben eta Eric haien adiskide minaren grin kontakizunak noiz edo noiz leitzeari utzi eta hausnartzeko eskatzen du, tragikotasunak oro tragikotasun, sarri paraleloan bereizita doazen ibaitzat jotzen ditugun sentimenduen eta ideien ur nahasien uztardura inoiz ez

erraza aztertzen eta ulertzen laguntzen ahal digulako.

Zentzu horretan, narrazioak gerra-giroko nobela historiko hutsen ohiko planteamendua gainditzen du. Horrek, hala ere, ez du galarazten gerra-giroko xehetasun estrategikoen zein kokagune eta baldintza fisikoen deskribapen zehatza, deskribapen hori pertsonaien barne-bidaiei dramatikusaren indargarria bilakatzen delarik.

Marguerite Yourcenarrek idatzi zituen hogeitik gorako obren artean, hau da euskaratu duten laugarrena. Beste hirurak, Hadrianoaren oroitzapenak –egilearen lan ezagunena–, *Alexis* eta *Ekialdeko kontakizunak* izenekoak dira. Zerbait bada.